

## 18/03 IRIZPENA

Nélida Zaitegi, lehendakaria  
Xabier Aizpurua  
Juan Carlos Jauregui  
M<sup>a</sup> Teresa Ojanguren  
Ismael Redondo  
Usoa Urbieta  
Eva Blanco, idazkari teknikoa

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren 2018ko apirilaren 11ko bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek adostasunez eman du ondoko irizpena: EAEko ikaste-txeetan hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei laguntzeko irakaskuntzaz besteko lan kontratudun langileen lanpostu zerrenda onartzen duen uztailaren 4ko 186/2017 Dekretua aldatzeko Dekretu proiektuari buruzkoa.

### I.- AURREKARIAK

Uztailaren 4ko 186/2017 Dekretuaren bidez onartu zen EAEko ikastetxeetan hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei laguntzeko irakaskuntzaz besteko lan kontratudun langileen lanpostu zerrenda.

Dekretu hori zuzendu egin zen, lanpostu zerrenda jasotzen zuen eranskina osorik argitaratuz Euskal Herriko Aldizkari Ofizialeko 164. alean, 2017ko abuztuaren 29an.

Martxoaren 6ko 34/2018 Dekretu bidez onartu ziren 186/2017 Dekretuaren eranskinari eginiko aldaketak (EHAA 2016/03/12).

### II.- EDUKIA

Dekretu proiektu honek hiru artikulua dauzka, eta baita ere bi azken xedapen eta eranskin bat.

1. artikulua onartu egiten ditu Eranskinean jasotako lanpostu zerrendan egin-dako aldaketak.
2. artikulua ezartzen du toki-aldatze lehiaketa izango dela lanpostuak horni-tzeko erregimena.
3. artikulua dio langileek lanaldi osoko dedikazio erregimena izango dutela.

Lehen azken xedapena errekurtsioak jartzeko prozedurari buruzkoa da. Bigarren azken xedapenak dio noiz sartuko den indarrean Dekretua.

Eranskinean jasota dago Hezkuntzako hiru Lurrealde Ordezkaritzetako lanpostu-zerrenda.

### **III. – BALORAZIOAK ETA PROPOSAMENAK**

Euskadiko Eskola Kontseiluko Batzorde Iraunkorrek 16/09 Irizpenean aztertu zuen lanpostu zerrenda hau onartzen zuen Dekretu Proiektua; irizpen horretan balorazio positiboa egin zitzaion LPZ argitaratu eta plazak ugaritu izanari.

Dekretu proiektu honek aldaketa hauek proposatzen ditu:

- “Hezkuntza Bereziko Espezialista” kategoriako 50 lanpostu berri sortzea, 14 Araban, 24 Bizkaian eta 12 Gipuzkoan, gero eta gehiago direlako hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak.

**Kontseiluaren iritziz oso positiboa da 50 lanpostu berri sortzea irakaskuntzaz besteko lan kontratudun langileen LPZ organikoan, horrek esan nahi baitu hobetu egingo direla irakasleen egonkortasuna eta irakasleek ikasle horiei ematen dieten arreta.**

- “Hezkuntza bereziko espezialista” lanpostu baten hizkuntza eskakizuna aldatzea, eta HE1 eskakizuneko postua HLEA bihurtzea, gaur egun ia ikasle guztiak D ereduak direlako.
- Terapeuta okupazional baten plaza tokiz aldatzea, G04 Berritzegunetik G05 Berritzegunera, arreta jasoko duen ikasle kopurua kontuan hartuta.

**Kontseiluak ez du eragozpenik aldaketa puntual horientzat, uste baitu hobetu egingo dutela funtzionamendua.**

- Keinu Hizkuntzako Interprete kategoriako LPZko lanpostuetan sartzeko behar diren tituluen zerrenda aldatzea, eta lanpostu horietarako behar diren bi tituluak zehaztea.

*“Komunikazio Bitartekaritzako Goi-mailako Teknikari” titulazioa edo baliokideren bat bakarrik agertu beharrean, horrekin batera orobat agertuko da “Keinu Hizkuntzako Interpretazioko Goi-mailako Teknikari” tituluak.*

Horri dagokionez, gorago aipatutako 16/09 Irizpenean jasota dago hainbat sektorek uste zutena, alegia, titulazio berrian eskatutako ezagutzak ez zirela Keinu Interpretarenean ezagutzekin parekatzeko modukoak. Horregatik, ikusirik nolako zalantzak



sortu ziren titulazio berriaren egokitasunaren inguruan, Kontseiluak proposatu zuen eskakizun horri berraztertzea eta ordura arte eskatu izan zen titulazioa mantentzea, harik eta egoera argitu arte.

**Kontseilua gustura dago bere ustez arrazoizkoa den proposamen hori kontuan hartu delako.**

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratzen da.

Bilbo, 2018ko apirilaren 11a

IDAZKARI TEKNIKOA

Sin.: Eva Blanco Ochoa

Ikus-Onetsia

LEHENDAKARIA

Sin.: NÉLIDA ZAITEGI DE MIGUEL

HEZKUNTZA SAILBURU ANDREA